



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **2017ko APIRILAREN 26an EGINIKO OHIKO UDAL BATZAREN AKTA**

2017ko apirilaren 26an, Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 20.05 orduetan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Iturbe Urdangarin (Asteasu Batuz, AB)  
Joseba Txapartegi Nieve (Asteasu Batuz, AB)  
Haritz Mugika Lasa (Asteasu Batuz, AB)  
Aitor Usandizaga Izaguirre (Asteasu Batuz, AB)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Ezin dela etorri aurretik adierazi du: Luke Uribe-Etxebarria Apalategi (EAJ/PNV)

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

### **GAI ZERREDA:**

#### **1. Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:**

- **2017.03.06ko Udalbatzarraren akta.**
- **2017.04.06ko Udalbatzarraren akta.**

#### **2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:**

- **2017.urtekoak (46-103).**

#### **3. 2016ko Ingerak:**

- **2016/01: Bulano.**

#### **4. Adierazpenak:**

- **EuroBasque Erromako Tratatuaren 60. Urteurrenaren aurrean**
- **Lesbianen ikusgarritasunerako nazioarteko eguna EH BILDU**

#### **5. Erregu eta galderak.**

.../...



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **LEHENENGO PUNTUA.**

#### **Aurreko Udalbatzarraren akta onartzea:**

- **2017.03.06ko Udalbatzarraren akta.**
- **2017.04.06ko Udalbatzarraren akta.**

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 5 (Legarra, Iturbe, Txapartegi, Mugika, Usandizaga)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenearekin, aipatu akta onartu du.

### **BIGARREN PUNTUA.**

#### **Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:**

- **2017.urtekoak (46-103).**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

-----  
Une honetan, 20:10ak direnean, Jose Jose Ramon Ayerza Sarasua jauna (Asteasu Batuz, AB) Udalbatzarrari batu zaio.  
-----

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **2016ko Ingerak:**

- **2016/01: Bulano.**

Idazkariak hitza hartu du: Indarrean dagoen araudiarekin bat, 2016. Urtean eginiko ingera noten espedienteak Udalbatzarrera ekartzen ditu eta, zehazki, dagozkion txostenak. 2016. urtean, ingera nota bakarra egin du, 2016-01 Bulano.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Egindako ingearen txostenaren berri eman du eta, gero, ingera nota altxatzeko 230/2016 Alkatetza Dekretua onartu zen, udal aparejadoreak eginiko txostenean oinarrituta.

Alkate andreak hitza hartu du: udal aparejadorearen txostena irakurri du. Bulanoko obrak baimendu ondoren, eta lanak egin ondoren, beste behar batzuk zeudela egiaztatu zuten, eta makinak bide horretan zeudela, gastua merkeagoa izateko, konponketa txiki batzuk egin ziren.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

## **LAUGARREN PUNTUA**

### **Adierazpenak:**

#### **- EuroBasque Erromako Tratatuaren 60. Urteurrenaren aurrean**

EuroBasque Erromako Tratatuaren 60. Urteurrenaren aurrean Europako Ekonomia Erkidegoko Tratatuak, egun EB, eta indarrean dagoen Europako Energia Atomiko Erkidegoko Tratatuak (Euratom) 60. urteurrena ospatzen dute. Itunak 1957ko martxoaren 25ean sinatu ziren Erroman, eta orduko argazkiak, sei herri sortzaileetako Estatu gizon ez bateriko gela erakusten digu. 60 urte hauetan, gizarte europarrak historian aurrekaririk gabeko garapen ekonomiko eta soziala lortu du. Aldi berean, Europak eraldaketa nabarmenak bizi izan ditu eta krisi sakonak gainditu: Berlingo harresiaren eraikuntza; deskolonizatzeak eta Argeliaren independentzia, Frantziaren aurkako guda eta gero; mirari ekonomiko alemaniarra; De Gaullek eragindako aulki hutsaren krisia; 1. zabalkuntza Erresuma Batua, Irlanda eta Danimarkara; terrorismoek eragindako sarraskiak; petrolioaren krisia eta menpekotasun energetikoa; 2. zabalkuntza bolada, Europa Hegoaldera, Grezia, Portugal eta Espainiako diktadurak erortzerakoan; Lady Thatcherren euroeszeptizismoa; Europa banatzen zuten Berlingo harresiaren eta altzairuzko oihalaren jauskera; errepublika baltikoen independentzia eta ekialdeko Europaren emantzipazioa; Sobiet Batasunaren desagitea; Balkanetako eta Golkoko guda; 3. zabalkuntza bolada, Iparraldera eta Austriara; Europako hainbat herriren ezetza erreferenduetan, haien gobernuak onetsitako Tratatuak berresteko orduan; oraindik burutu gabe dagoen Ekialderako 4. zabalkuntza bolada. Krisialdiaren aurrean, europeismoak eta integrazio europarrak aurrera egin dute Batasun barnean zuzenbidearen inperioa finkatuz Europa mailako sistema judizial baten bidez; barne merkaturak, askatasun, segurtasun eta justizia guztiak, Batasuneko hiritartasuna; Oinarritzko Eskubideen Gutuna, loteslea; Europako Parlamentuaren boterearen gehitze progresiboa, Batzordeko presidentzia izendatzeraino; aldaketa klimatikoaren aurkako borroka eta garapen iraunkorraren aldeko estrategia; maila anitzetako gobernantza eta subsidiaritatea; gizarte eta lurralde kohesioa eta estruktura funtsak; Euroa, kontsumitzaileen babesa; bereizkeriaren aurkako borroka eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna; lehiaketa askeko baldintzetan merkatuzko ekonomia sozial



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

sistema bat, kanpo politika komun, kanpo ekintza eta defentsa herabeak (ASPE, KEEZ, SDPK), ... Erkidegoaren ondareaz dihardu, zeinek integrazioa hobetzeko eta demokratikoagoa, solidarioagoa eta sozialagoa egiteko kemena eman behar bait digun. Eta garrantzitsuena, Europak bere historiako bakealdirik luzeena bizi izan du, horri esker 2012ko Bakearen Nobel Saria merezi izan zuelarik.

Egun, Europan krisi sistemiko bat jasaten ari gara: Euroaren krisi finantziario eta ekonomikoa, oraindik dirauena, erreskatatzeekin, herstura politikekin, murrizpenekin eta ongizate estatuaren atzerakadarekin; Brexit-a; terrorismo yihadista-ren astindua 2001-S-11-ak eta "izuaaren aurkako guda"k areagotua; gerratik ihesi Europara babes bila datozen pertsonen drama; populismo eurofoboaren zabalkuntza eta Europa erdian demokrazia iliberal baten agertzea. Kontseilu Europarreko presidentak, Donald Tuskek honakoa gehitzen du: "Washington-go gobernu berriak ekar ditzakeen arazoak, Txinaren politika Pazifikoan, Errusiaren oldarkeria Ukraina eta inguruko herrialdeekiko, edo guda eta terrorismoa Ekialde hurbilean eta Afrikan, Islam erradikalaren eskutik". Ez diezaiozun gure buruari engaina: Europak bat eginda soilik aurre egin diezaieke krisi hauei! Baina sistema instituzional demokratiko eta gardenagoa behar du, konplexutasun gutxiagorekin, hiritarrekiko eta Europa osatzen duten herriekiko hurbilagoa, eta serioz hartu hartu behar ditu, barrura eta kanpora begira, Europako Tratatuak, 2. eta 3. artikuluetan aldarrikatzen dituen baloreak. EB Giza Eskubideen Europako Hitzarmenari atxikitu behar zaio lehenbailehen eta, berezkoa duen aniztasuna aintzakotuz, Federakuntzarantz aurrerapausoa eman. EuroBasque-k, Haga-ko 1948ko Kongresuan Europako Nazioarteko Mugimenduaren sortzailetakoa bat izanik, naziozgaindiko sistema europear baten integratzeko apustua berresten du, zeinetan, estatu-azpiko nazioek erakunde komunetan era aktiboan parte hartzen duten, alegia, Erregioen Komite epela baino haratago. Bokazio federala duen Europako herri zahar bat izanik, interes handiz jarraitzen ditugu Eskoziako independentzia erreferenduma eta Europan geratzeko beren gehienengoaren botoa. Mundura zabalik dagoen Europa federala desiratzen dugu, zailtasunak dituzten herrialdeekiko duen erantzukizuna berea eginik, eta azkenengo funtsa Estatuak baino Europako hiritarrak dituen, eta "Europako herrien arteko batasun gero eta estuagoa"-ren aldeko gure apustua berresten dugu.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Iturbe, Txapartegi, Mugika, Usandizaga, Ayerza)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udaltzak

ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

- **Lesbianen ikusgarritasunerako nazioarteko eguna EH BILDU**

Apirilak 26 – Lesbianen ikusgarritasunerako nazioarteko eguna

EH BILDUK, hurrengo mozioa aurkezten du, Giza Eskubideen batzordean eztabaidatua izan dadin, “Dauden genero- eta sexu-errealitate ezberdinak herritarrei ezagutarazteari buruz”.

ZIOA:

Emakundek hainbat urtetan berdintasunaren aldeko eta genero identitateagatik edo sexu-joeragatik ez baztertzeko kanpainak egin dituen arren, uste dugu beharrezkoa dela transexualitatea despatologizatzeko, ikusgarritasun lesbikorako eta bazterkeria eragiten duten elementuak (generoa, jatorria, sexu-praktikak, etab.) ikustarazteko kanpaina zehatzak sustatzea.

Aldarte Gay, Lesbiana eta Transexualen harretarako elkarteak “Lesbianak ikusgai eta eskubidedun” kanpaina hainbat gai azpimarratu zituzten, eta horien artean honakoa adierazten dute: “Esparru publikoan da bereziki nabarmena ikusgaitasun lesbikoaren urritasuna. Askozaz ikusgaiago dira lesbianak arlo pribatuan, publikoan baino; beraz, familia eta lagun artean da zabalagoa eta moldagarriagoa ikusgaitasuna, lan eta enpresa munduan, kalean, auzoan, komunikabideetan eta politikan baino. Gure herrian, jendarteak lesbianismoaz duen irudikapenaren eraikin horrek miniaturaren neurriak ditu, maketa eskalako neurriak.

Ikusgaitasunaren elikagai ditugu, besteak beste, komunikabideak, erreferente historikoak eta esparru publikoak, sexualitateak jendartean duen onarpena eta botere politikoa, eta elementu horiek guztiak urri dituzte emakumeek.”

Honek, bi eragin nabarmen ditu lesbianen, transexualen... bizipenetan Aldarteren arabera, alde batetik gizarte baliabideak erabiltzerako garaian, hauei maila apalagoan edo baldintza okerragoetan heltzera jotzen dute. Bestea, haien identitate, sexualitatea modu aske batean ez bizitzea eragiten du.

Horren aurrean, talde honek hurrengo mozioa babesteko proposamena aurkezten du:

MOZIO PROPOSAMENA:

ASTEASUKO UDALAK Aldundiari eta Jaurlaritzari eskatzen die transexualitatea despatologizatzeko, ikusgarritasun lesbikorako eta bazterkeria eragiten duten elementuak (generoa, jatorria, sexu-praktikak, etab.) ikustarazteko kanpaina zehatzak susta ditzala.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Iturbe, Txapartegi, Mugika, Usandizaga, Ayerza)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

**Erregu eta galderak.**

Ez dira aurkeztu.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat ematen du gaueko 20.15 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2017ko apirilaren 26an.

Alkatea

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea